

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2020ko zerga

Iragarki hau argitaratzen denetik aurrera hamabost egunez egongo da jendaurrean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda dela-eta alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko moduan jarriko da 2020ko martxoaren 15etik apirilaren 15era arteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne. Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako berez eta besterik gabe betearazte aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarquak eskatzea, 2/2005 Foru Arau Orokorrak, zergei buruzkoak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2020ko otsailaren 10a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI